



Algo más de la mitad de la población de la Comunidad Autónoma de Euskadi declara tener conocimientos de euskera

Un 60% de este colectivo, que supone el 31% de la población total, se autodefine como euskaldun

Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen erdiek baino gehixeagok aitortu dute euskara zerbait badakitela


Talde honen % 60, biztanleria osoaren % 31, euskalduntzat jo du bere burua

Por primera vez en los últimos decenios, la mayoría de la población está inmersa directamente en el proceso de recuperación y mantenimiento del euskera, ya que algo más de la mitad declararon tener algún conocimiento, mientras que en 1981 sólo lo hicieron uno de cada tres.

Eustat, en colaboración con Ayuntamientos y Diputaciones a obtenido estos datos después de una recogida masiva de información de las 820.000 viviendas familiares, de las 684.000 familias y de 2.098.055 personas residentes de la C.A. de Euskadi en 1996.

2 urte eta gehiagoko biztanleria adinari eta euskara-maila orokorrari jarraiki. (%) 1996.

Población de 2 y más años por la edad y el nivel global de euskara. (%) 1996.



Azken hamarkadetan lehen aldiz, herritar gehienak

euskara berreskuratzeko eta iraunarazteko prozesuan zuzenean murgilduta daude, zeren erdiek baino gehixeagok aitortu baitute euskara zer edo zer badakitela; 1981ean, berriz, hirutik batek baino ez zuten aitortu.

Datu horiek Eustatek lortu ditu, udal eta aldundi guztien laguntzaz. Horretarako, 1996an, informazio-bilketa eskerga bat egin zen Euskal Autonomia Erkidegoan, eta orduan 820.000 etxebizitza, 684.000 familia eta 2.098.055 biztanle zituen gure erkidegoak.

De los que en 1996 declararon tener algún conocimiento, el 30,9% afirmaron entender y hablar bien el euskera —euskaldunes—, y un 19,7% que lo entendía y/o hablaba con dificultad —cuasieuskaldunes—.

Sólo una de cada tres personas en Gipuzkoa, (32,3%) afirma desconocer el euskera completamente —erdaldunes—, contando prácticamente con mayoría de euskaldunes (el 49,7%). En Bizkaia declara que entiende y habla bien euskera uno de cada cuatro residentes (el 23,7%), mientras que están en esa situación uno de cada siete alaveses —el 14,7%—.

2 urte eta gehiagoko biztanleriaren bilakaera, euskara-maila orokorrari jarraiki, lurraldeka (%). 1981-1996.

Evolución de la población de 2 y más años por el nivel global de euskera por territorio histórico (%). 1981-1996.

	EUSKAL AE / C.A. DE EUSKADI				ARABA / ÁLAVA				BIZKAIA				GIPUZKOA			
	1981	1986	1991	1996	1981	1986	1991	1996	1981	1986	1991	1996	1981	1986	1991	1996
EUSKALDUNAK EUSKALDUNES	21,5	24,6	26,3	30,9	3,9	6,7	8,6	14,7	14,9	17,5	18,9	23,7	39,5	43,7	45,9	49,7
IA-EUSKALDUNAK CUASIEUSKALDUNES	14,5	17,4	19,8	19,7	9,5	16,8	20,0	19,7	13,4	17,8	20,5	20,8	18,1	17,0	18,6	17,9
ERDALDUNAK ERDALDUNES	64,0	58,0	53,9	49,4	86,6	76,5	71,4	65,8	71,8	64,7	60,5	55,5	42,4	39,4	35,5	32,3

El porcentaje de la población, que aún teniendo conocimientos de euskera declara dificultades de comprensión y/o de habla, resulta similar en los tres territorios históricos, y se aproxima al 20%; en este subgrupo, además de la población que pierde el euskera después de haberlo tenido de lengua materna, se incluyen también los estudiantes que están en proceso de aprendizaje.

El mayor incremento de euskaldunes de los últimos 15 años se ha producido en el quinquenio 1991-1996, un 17%, siendo 93.205 personas en cifras absolutas. Este saldo positivo resulta de unas entradas en el censo de euskaldunes de 110.628 personas, y de unas salidas de 17.423, ya sea por defunciones o emigraciones.

Porcentualmente Álava ha sido el territorio que más ha crecido en esos cinco años: 6 puntos —17.000 euskaldunes más—, Bizkaia aumenta 5 puntos —51.000 más— y Gipuzkoa casi 4 puntos —25.000 más—.

Resulta destacable la evolución que ha habido en las tres capitales en estos cinco años, teniendo en cuenta, además, que algo más de uno de cada tres residentes en la C.A. de Euskadi (35,5%) está empadronado en ellas.

1996an euskara zer edo zer bazekitela aitortu zutenen artean, % 30,9k baieztatu zuen euskara ondo ulertzen eta hitz egiten zutela (euskaldunak), eta % 19,7k euskara nekez ulertzen eta/edo hitz egiten zuela (ia-euskaldunak).


Gipuzkoan, hirutik batek (% 32,3) baino ez du aitortu euskaraz ezertxo ere ez dakiela (erdaldunak), eta euskaldunak ia gehienak dira (% 49,7). Bizkaian, lau biztanletik batek aitortu du euskara ondo ulertzen eta berba egiten duela (% 23,7); egoera berean daude zazpi arabarretatik bat (% 14,7).

Euskara zerbait jakin arren, euskara ulertzeko eta/edo euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituztela aitortzen dutenen ehunekoak, berriz, berdintsuak dira hiru lurralde historikoetan (% 20 inguruak). Azpitalde horretan sartzen dira ama-hizkuntzatza euskara izan duten eta ondoren euskara galdu duten biztanleak; horietaz gain, euskara ikasten ari diren ikasleak ere hor sartzen dira.

Azken 15 urteetan, euskaldunen gehikuntzarik handiena 1991-1996 bosurtekoan gertatu da (% 17); kopuru absolutuetan, gehikuntza 93.205 lagunekoa izan da. Beraz, saldoa positiboa izan da; izan ere, 110.628 euskaldun sartu dira zentsuan, eta 17.423 irten dira, hiltzeagatik edo emigratzeagatik.

Ehunekoetan, Araba hazi da gehien bost urte horietan, 6 puntu (17.000 euskaldun gehiago); Bizkaia 5 puntu igo da (51.000), eta Gipuzkoa, ia 4 puntu (25.000).

Aipagarria da nolako bilakaera izan duten hiru hiriburuek bost urte horietan; kontuan izanik, gainera, Euskal AEko biztanleen artean, hirutik bat baino gehiago hiriburu horietako batean dagoela errolatuta (% 35,5).



Vitoria-Gasteiz casi duplica sus cifras (un 89%), pasando de 15.000 a 29.000 euskaldunes

Le sigue Bilbao, con un 45% de aumento y 16.000 euskaldunes más, mientras que Donostia-San Sebastián posee un incremento más moderado: el 23% y 10.600 más.

Un bilbaíno o vitoriano de cada siete se declara capaz de entender y hablar euskera, mientras que esa cifra asciende a un donostiarra de cada tres.

De los municipios grandes, se aprecia que los más importantes de la margen izquierda resultan ser los que consiguen incrementos más fuertes.

Barakaldo duplica su cifra pasando de 4.300 a 9.100 euskaldunes, aunque sólo una persona de cada diez declara que domina el euskera. Santurtzi, también, casi duplica su cifra, pasando de 2.700 a 5.400; Portugalete pasa de 3.500 a 6.000, incremento porcentual similar al de Sestao, que pasa de 1.800 a 3.100. Ortuella pasa de 500 euskaldunes a 1.200.

Al igual que en Barakaldo, cerca de una de cada diez personas se autodefine como euskaldun en Portugalete, Sestao y Santurtzi, mientras que en Ortuella la proporción es uno de cada siete.

Vitoria-Gasteizen ia bikoiztu egin da euskaldun-kopurua (% 89), 15.000tik 29.000ra igo baita

Ondoren, Bilbao dago, % 45eko igoerarekin (16.000 euskaldun gehiago); Donostiak gehikuntza neurritsua goa izan du: % 23 eta 10.600 euskaldun gehiago.


Bilbotarren eta gasteiztarren artean, zazpitik batek aitortu du euskara ulertzeko eta euskaraz hitz egiteko gai dela; donostiarren artean, berriz, kopuru hori hirutik batera igotzen da.

Udalerrri handien artean, gehikuntzarik handienak ezker-ibarreko udalerrri handietan antzeman dira.

Horrela, Barakaldon, bikoiztu egin da euskaldun-kopurua (4.300dik 9.100era), nahiz eta hamarretik batek aitortu duen bere burua euskalduntzat. Santurtzin ere bikoiztu egin da kopuru hori (2.700dik 5.400era); Portugaleten, 3.500dik 6.000ra pasatu da; Sestaoko gehikuntza ere antzekoa izan da (1.800dik 3.100era). Ortuella 500dik 1.200era pasatu da.


Barakaldon bezala, Portugaleten, Sestao eta Santurtzin ere hamarretik batek euskalduntzat jo du bere burua; Ortuellan, berriz, proportzio hori zazpitik batekoa da.

Euskaldunak udalerrika. % udal-biztanleriaren aldean. 1996.
Euskaldunes por municipio. % sobre la población municipal. 1996.



Euskaldunen bilakaera. 1991-1996.

Evolución de los euskaldunes. 1991-1996.



El incremento del censo de euskaldunes en la margen izquierda resulta aún más significativo si consideramos que ha sufrido pérdidas poblacionales de más del 3%.

El quinto municipio de la Comunidad y el tercero de Bizkaia en cuanto a tamaño, Getxo, aumenta un 39% sus efectivos de euskaldunes, pasando de 11.200 a 15.600.

Llodio y Amurrio, principales municipios de Alava, también incrementan sensiblemente sus cifras de euskaldunes: el primero en un 50% —de 2.700 a 4.100— y el segundo en un 64% —de 1.100 a 1.900—. Cerca de uno de cada cinco vecinos de estos municipios podía entender y hablar bien el euskera en 1996.

En los municipios gipuzcoanos más grandes, se detectan evoluciones sensiblemente diferentes; así Irun, que resulta ser el segundo municipio, incrementa un 24% su censo de euskaldunes, pasando de 13.000 a casi 16.000.

El tercero, Rentería, perdiendo un 5% de población, consigue aumentar un 13% —de 10.000 a 11.400—. En Irun y Rentería se autoclasificaron como euskaldunes algo menos de una de cada tres personas (29%).

Ezker-ibarreko euskaldun-eroldaren gehikuntza are adierazgarriagoa da, kontuan hartzen badugu eskualde horrek biztanle-galerak jasan dituela (% 3tik gorakoak).

Gure erkidegoko bostgarren udalerrian eta Bizkaiko hirugarrenean, tamainari dagokionez, Getxon, % 39 igo da euskaldun-kopurua, eta 11.200dik 15.600era pasatu da.

Arabako udalerrri nagusietan ere (Laudion eta Amurrio) nabarmen gehitu dira euskaldun-kopuruak: lehenengoan, % 50 (2.700dik 4.100era), eta bigarrenean, % 64 (1.100dik 1.900era). Udalerrri horietako biztanleen artean, bostetik batek edo zekien euskara 1996an.

Gipuzkoako udalerrri handienei gagozkielarik, bilakaera guztiz desberdinak ikus ditzakegu: Irunen, probintziako bigarren udalerrian, % 24 gehitu da euskaldun-kopurua, eta 13.000tik ia 16.000era pasatu da.

Hirugarrenean, Erreterian, nahiz eta % 5 jaitsi den biztanle-kopurua, euskaldun-kopurua % 13 igo da (10.000tik 11.400era). Irunen eta Erreterian, biztanleen ia herenek (% 29) aitortu zuten beren burua euskalduntzat.

Eibar, que perdió casi 1.500 vecinos entre 1991 y 1996, incrementa muy ligeramente su porcentaje de euskaldunes: del 46,5% en 1991 al 49,5 %.

Arrasate-Mondragón, también con pérdidas poblacionales (-3,6%), pasa de 12.300 a 13.000; del 49,1% en 1991 llega al 54% de euskaldunes en la última operación censal.

De los 250 municipios con que contaba la C.A. de Euskadi en 1996, en más de la mitad (165), aumentan los euskaldunes, en cinco prácticamente se mantienen las cifras y en los 77 restantes (excluidos Arratzu, Zierbena y Gaztelu, que no existían en 1991) bajan.

Se aprecia un avance intenso en el conocimiento del euskera por el oeste y el centro de la Comunidad, zonas donde tradicionalmente su implantación ha sido escasa

Inversamente, por el este, municipios de tamaño pequeño del Goierri, Tolosaldea y Urola Costa, pierden población y también pierden euskaldunes, en la mayor parte de los casos por la mortalidad de una población muy envejecida y además euskaldún en proporciones muy altas.

En Bizkaia, Gernika-Bermeo y Markina-Ondarroa también sufren este proceso de retroceso poblacional y lingüístico.

Dos de cada tres nuevos euskaldunes en el período 1991-1996 han nacido a partir de 1980

Esas generaciones tenían 14 años o menos en 1996. Las generaciones que contaban en aquella fecha entre 15 y 29 años aportaron un 22%.

Eibarrek, nahiz eta 1991 eta 1996 artean ia 1.500 biztanle galdu dituen, zertxobait igo du euskaldun-kopurua: 1991ko % 46,5etik % 49,5era.

Arrasaten ere biztanle-kopuruak behera egin du (% -3,6), eta 12.300dik 13.000ra pasatu da; euskaldun-kopurua 1991ko % 49,1etik % 54ra pasatu da azken zentsu-eragiketan.

Euskal AEk 1996an zituen 250 udalerrietatik, 165ean (erdietan baino gehiagotan), gora egin dute euskaldunek; bostetan, aurreko kopuruak errepikatu dira, eta gainerako 77tan —hiru, Arratzu, Zierbena eta Gaztelu ez ziren existitzen 1991n—, behera.

Laburbilduz, ikus daiteke euskararen jakite-maila aurrera egiten ari dela erkidegoko mendebaldetan eta erdialdean, hau da, euskarak orain arte ezarpen txikia izan duen eskualdeetan


Ekialdean, aldiz, Goierriko, Tolosaldeko eta Urola-Kostaldeko udalerri txikietan, biztanleak galdu dira, eta, aldi berean, euskaldunak ere galdu egin dira. Izan ere, kasurik gehienetan, biztanleria oso zahartuta dago eta euskalduna da proportzio handietan, eta hori da, hain zuzen, hiltze-tasa handienekoa.

Gernika-Bermeon eta Markina-Ondarroan (Bizkaia) ere atzera egin dute biztanle- eta euskaldun-kopuruak.


1991-1996 aldian, hiru euskaldun berrietatik bi 1980az geroztik jaioak dira

Belaunaldi horiek 14 urte edo gutxiago zituzten 1996an. Orduan 15 eta 29 urte artean zeudenek % 22ko ekarpena egin zuten.

Ama-hizkuntzaren banaketa Euskal AEn. (%) 1996.
Distribución, según la lengua materna, en la C.A. de Euskadi. (%) 1996.



Etxean erabiltzen den hizkuntzaren banaketa Euskal AEn. (%) 1996.
Distribución, según la lengua hablada en casa, en la C.A. de Euskadi. (%) 1996.



Uno de cada cuatro residentes en la Comunidad ha tenido como lengua materna el euskera o el euskera y el castellano simultáneamente

Un 20% de la población tiene el euskera de primera lengua de forma casi exclusiva.

Con respecto a 1986 y 1991 las distribuciones de lengua materna no han variado de forma significativa.

Algo más de uno de cada cinco residentes en la C.A. de Euskadi (464.755) utilizan el euskera en casa. Un 13,6% de forma predominante

En Gipuzkoa utilizan el euskera en el hogar dos de cada cinco residentes (41,1%), uno de cada siete en Bizkaia (15,2%), y sólo un 5% en Álava.

El 21,5% de los donostiarres (el 9,6% mayoritariamente), el 6,1% de bilbaínos (el 1,5% sólo euskera), y el 4,3% de los vitorianos (1,2% sólo euskera) utilizan el euskera como lengua del hogar.

De los municipios grandes, los que cuentan con un mayor porcentaje de euskaldunes activos (utilizan el euskera sólo o euskera y castellano) son: Eibar con un 37%, Galdakao con un 23%, Rentería con un 20% e Irun con un 17%.

De los 250 municipios de la Comunidad, en 27 la inmensa mayoría de la población utiliza el euskera en casa (más del 95% de la población del municipio), en 104 se supera el 50%, 30 se sitúan entre el 22% (media de la Comunidad) y el 50%, y los 89 restantes no alcanzan la media de la Comunidad.

A pesar del fuerte aumento de la cifra de euskaldunes en el período 1991-1996, las cifras del uso del euskera en casa no han variado significativamente

Aunque la proporción de las personas que utilizan exclusivamente el euskera en casa se mantiene, en cifras absolutas, y para el período señalado, se ha producido una pérdida de cerca de 4.000 personas. Saldo resultante de unas entradas de 16.000 individuos y de casi 19.000 pérdidas.

Euskal AEko biztanleen artean, lautik batek euskara edo euskara eta gaztelania aldi berean izan ditu ama-hizkuntzat

Biztanleen % 20k euskara du lehen hizkuntza, ia soil-soilik.

1986aren eta 1991ren aldean, ama-hizkuntzaren banaketak ez dira nabarmen aldatu.

Euskal AEko biztanleen artean, bostetik batek (464.755) etxean euskara erabiltzen du. % 13,6k beti euskara erabiltzen du

Gipuzkoan, bost biztanletik batek erabiltzen du euskara etxean (% 41,1); zazpitik batek, Bizkaian (% 15,2), eta % 5ek baino ez Araban.

Donostiarren % 21,5ek (% 9,6k batez ere euskara), bilbotarren % 6,1ek (% 1,5ek euskara hutsez) eta gasteiztarren % 4,3k (1,2k euskara hutsez) etxean euskara erabiltzen dute.

Udalerrri handien artean, hona hemen euskaldun aktiboen ehuneko handienak dituztenak (euskara hutsez edo euskaraz eta

gaztelaniaz mintzatzen direnak): Eibar (% 37), Galdakao (% 23), Erreterria (% 20) eta Irun (% 17).

Gure erkidegoko 250 udalerrietatik, 27tan, gehientsuenek etxean euskara erabiltzen dute (udalerriko biztanleriaren % 95etik gora); 104tan, % 50etik gora dira; 30etan, % 22 eta % 50 artean daude —horixe da, hain zuzen, gure erkidegoko batez besteko portzentaia—, eta gainerako 89tan, erkidegoko batez bestekoaren azpitik daude.

Nahiz eta 1991-1996 aldian asko igo den euskaldun-kopurua, etxean euskara erabiltzen dutenen kopuruak ez du aldaketa aipagarri izan

Etxean euskara hutsez hitz egiten dutenen proportzioak gorabehera handirik izan ez duen arren, zenbaki absolutuetan, 4.000 lagun inguruko galera izan du kopuru horrek aipatutako aldian. Izan ere, 16.000 lagun sartu dira, eta 19.000 irten.

Etxean erabiltzen den hizkuntza eta ama-hizkuntza, lurraldeka. (%) 1996.
Lengua hablada y lengua materna por territorio histórico. (%) 1996.

		BIZTANLERIA OSOA POBLACIÓN TOTAL	EUSKARA EUSKERA	GAZTELANIA CASTELLANO	EUSKARA ETA GAZTELANIA EUSKERA Y CASTELLANO	BESTE BAT OTRA
ETXEAN ERABILTZEN DEN HIZKUNTZA LENGUA HABLADA EN CASA	EUSKAL AE C.A. DE EUSKADI	2.098.055	13,6	77,3	8,5	0,5
	ARABA / ÁLAVA	281.821	1,5	94,6	3,4	0,5
	BIZKAIA	1.140.026	8,6	84,2	6,6	0,6
	GIPUZKOA	676.208	27,2	58,5	13,9	0,5
AMA-HIZKUNTZA LENGUA MATERNA	EUSKAL AE C.A. DE EUSKADI	2.098.055	20,3	74,1	4,0	1,6
	ARABA / ÁLAVA	281.821	3,2	93,4	2,2	1,2
	BIZKAIA	1.140.026	13,6	81,3	3,3	1,8
	GIPUZKOA	676.208	38,6	53,8	6,0	1,6


Las entradas las aportan mayoritariamente las generaciones nacidas en 1986 y años posteriores, mientras que tres de cada cuatro salidas se pueden imputar a la mortalidad y el cuarto restante a la emigración.

Si analizamos la evolución del grupo de residentes en la C.A. de Euskadi que utilizan indistintamente el euskera y el castellano en casa, se ha incrementado su cifra en 9.000 personas, resultado de 18.400 entradas y unas pérdidas de 9.400 individuos.

La pérdida frecuente del uso del euskera en los grupos que lo han tenido como lengua materna, que afecta a todos los grupos de edad (y más a los más longevos), por un lado, y el envejecimiento y decrecimiento poblacional en los municipios o zonas de uso tradicional, por otro, no cabe duda, que están asociados a la estabilización del censo de euskaldunes activos. ■

2 urte eta gehiagoko biztanleria ama-hizkuntzat euskara eta duena etxean euskara erabiltzen duena, adinka. (%) 1996.

Población de 2 y más años con el euskera como lengua materna y como lengua hablada en casa, por edad (%). 1996.



Sarrerak, gehienbat, 1986an eta hurrengo urteetan jaio-tako belaunaldiek ekarri dituzte; lau irteeratik hiru, berriz, hiltze-tasei egotz da-kieke, eta beste laurdena, emigrazioari.

Etxean euskara zein gaztelania erabiltzen dituzten Euskal AEko biztanleek nolako bilakaera izan duten aztertzen badugu, ikusiko dugu talde hori gehitu egin dela (9.000 gehiago), zeren 18.400 sarrera eta 9.400 irteera izan baitira.

Alde batetik, euskara ama-hizkuntzat izan dutenen taldean, askok ez dute hizkuntza hori erabiltzen; ez erabiltze hori adin-talde guztietan gertatzen da, baina batez ere zaharren artean. Bestalde, udalerrri edo eskualde euskaldunenak zahartuz joan dira, eta biztanleak galdu dituzte. Hori guztiaren ondorioz, zalantzarik gabe, euskaldun aktiboen erroldak ez du gorabeherarik izan. ■





Esta operación de carácter censal recoge una ingente información relativa a la estructura de la población, su relación con la actividad, la fecundidad, la educación, el euskera, la migración, al censo de familias y núcleos familiares con su estructura y principales características, y al censo de viviendas.

Todo este caudal de información, está disponible no sólo para el ámbito de la C.A. de Euskadi y territorios históricos, sino también para comarcas, municipios, e incluso para los municipios de 10.000 o más habitantes por barrios. También para las entidades de población y otras unidades inframunicipales (distrito, sección, edificio), con las limitaciones que impone la salvaguarda del secreto estadístico.

Además de la desagregación espacial, esta operación ofrece la posibilidad de definir y de estudiar subgrupos de población limitados en cuanto a sus efectivos, consiguiendo una desagregación temática a la que rara vez pueden llegar las técnicas muestrales: tipologías espaciales, transmisión familiar (de lengua, profesión, status, etc.), movilidad social, homogamia, composición familiar y nuevos tipos de familia, etc., pueden ser abordados desde las fuentes censales.

Al disponer de series quinquenales de información censal desde 1970, Eustat ofrece la posibilidad de construir series para la mayor parte de las características de la población.

Zentsu-eragiketa honek informazio-kopuru handia biltzen du, hainbat gairi buruzkoa: biztanleriaren egitura, jarduerarekiko erlazioa, jaiotze-tasak, hezkuntza, euskara, migrazioa, familien eta famili guneen zentsua eta horien egitura eta ezaugarri nagusiak, eta etxebizitzaren errolda.

Informazio hori guztia erabilgarri dago Euskal A Eko edo lurralde historikoaren eremuan; baina, era berean, erabilgarri dago beste eremu txikiago batzuetan ere: eskualdeak, udalerrriak eta 10.000 biztanletik gorako udalerrietako auzoak. Biztanleri entitateei eta udalaz azpitiko beste unitate batzuei buruz ere eman daiteke informazioa, betiere estatistika-sekretua zaintzen bada.

Lurralde mailako destaldekatzeaz gain, eragiketa honek kide-kopuru jakineko biztanle-azpitaldeak zehazteko eta aztertzeak aukera ere eskaintzen du, hau da, gaikako destaldekatze bat lortzeko aukera ematen du, zeren laginketa-teknikak nekez iristen baitira maila horietara: lurralde-tipologia, familia bidezko jarraipena (hizkuntza, lanbidea, estatua, etab.), gizarte-mugikortasuna, homogamia, familia-mota berriak, etab. zentsu-iturrien bidez azter daitezke.

1970etik zentsu-informazioko bost urtean behingo serieak daudenez, biztanleriaren ezaugarri gehienei buruzko serieak osatzeko aukera eskaintzen du Eustatek.

INFORMAZIO-ESKAERA

Galderaren bat egin nahi baduzu edo datu gehiago behar baduzu, hemen aurkituko gaituzu:

EUSTAT (Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística)
Wellingtono Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 18 75 00
Faxa: 945 18 75 01
e-mail: eustat@eustat.es
www.eustat.es

SOLICITUD DE INFORMACION

Para cualquier consulta o ampliación de los datos, pueden dirigirse a:

EUSTAT (Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística)
Duque de Wellington, 2
01010 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 18 75 00
Fax: 945 18 75 01
e-mail: eustat@eustat.es
www.eustat.es



Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO